

EGUBERRIAK SAKANAN


532. Guaixeren gehigarria | 2015eko azaroaren 27a



**Bizikletak
Osagarriak
Akzesorioak**

BERRI BIKES

948 469 188
Egubera, 19 · Altsasu



LENTZERIA

Erosoa... eta sexya



EROSOA IZATEA. HORI DA GEHIENOK BARRUKO ARROPARI ESKATZEN DIOGUNA.

Baina horrekin batera, barruko arropa polita izatea nahi dugu, ukitu sexy eta sofisticatua izatea. Horrek hobeto sentiarazten omen du. Eta hori eskaintzen saiatzen dira lentzeria etxeak.

TXURIA ETA BELTZA, ANIMAL PRINTA ETA LAUKI ESKOZIARRAK

Ohiko koloreek ez dute huts egiten 2015-2016 lentzeria bildumetan. Beltza eta zuria dira erregeak, betiko moduan. Bakoitza bere aldetik, edo elkarrekin. Izan ere aurtent zuriaren eta beltzaren arteko konbinazioa da lentzeria etheen apustu etako bat. Konbinazio horrek ez

du huts egiten. Bestalde, animal printak "must" edo tendentzia izaten jarraitzen du. Tigre, zebra, lehoi... estanpatuak aurkitu ahalko ditugu barruko arropetan, bai emakumeendako eta baita gizonendako ere. Eta aurtent kortsetegi eta lentzeria dendetan badago aipagarria den beste tendentzia bat: tartanak edo koadro eskoziarrak, mota guztietakoak. Denim edo bakero efektua duen lentzeria ere topatuko dugu barruko arropetan. Horretaz gain, kolore argiak, grisak eta ke koloreak dira beste tendentzia bat, estanpatu opakoekin jantzitakoak, jakina, kolore indartsuagoekin batera: ardo kolorea, morea, arrosa, fuchsia, urdin turkesa... Sarritan enkajarekin, lore brodatuekin, lazoekin eta beste apainduta. Erromantizismoa modan dago, larru efektu eta rock izar modarekin batera.



GORPUTZARI EGOKITUTAKOAK

Norberaren gorputzari egokitzeko mota guztietako aukerak eskaintzen dituzte lentzeria etxeek: titiak bildu, igo eta handiagotzeko push up edo bularreko beteak, titiak txikitzeko efektua duten bularrekoak, tripa sartzeko efektua lortzen duten kulero, body, kortse, gerriko edo faja bereziak, ipurdia bildu eta igotzeko kuleroak... Kortsetegi eta lentzeria dendetako profesionali galdetzea da onena, etengabe berrikuntzak sortzen baitira. Materialetan, mikrofibratik

hasita mota guztietako materiala aurkitu ahal da: zeta, satina, enkajea, kotoia, blonda, distirak, metalizatutakoak, larru efektukoak, transparentziak...

SEDUKZIORAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Eta, jakina, sedukziorako nahi adina aukera eskaintzen du aurtengo lentzeria modak. Norberak ausartu nahi duenera arte: mota eta kolore askotako pikardiak, negligeak, kortseak, bodyak, ligak, babydollak, ligeroak... Animatzea da kontua.



ETXEKO GUZTIENDAKO PIJAMAK

Eguneko martxa mugituaren ondoren etxera iritsi, arropa kendu eta pijama jantzi. Bizitzako plazer txikitako bat da hori. Haur, guraso eta aiton-amon, askorendako pijama da etxeke uniforme. Eta aurtent ere kalera salto egin du pijamak, diseinatzaile asko pijaman oinarritu baitira kalerako lookak proposatzeko. Pijama modan dago. Neguko pijama batek eroso, goxoa, beroa eta polita behar du izan. Ohiko pijama laukidunez gain, aurtent kolore biziko pijamak ditugu aukeran, marrazkidunak. Baita naïf estiloko estanpatuak dituztenak edo Gabonetako eta neguko elementuak dituztenak ere. Gabonetako opari perfektua.





Pili, Erkuden, Irantzu eta Anuska

San Juan 30, Altsasu 948 467 910



UDAZKEN NEGURAKO EZIN-BESTEKO JANTZIAK

Gure markek artilezko jertse eta jakak aukeratu dituzte

bertsio ezberdinetan, kolore anitzak, motzak, luzeak eta batez ere litsak emakumeendako eta jaspeztatuak eta kaptxadunak gizonaezkoendako. Berrikuntza bat neopreno materiala da eta koloretan, granatea eta mostaza, beltza eta marroiekin konbinatzeko, argitasuna ematen dutelarik.

LARKA EMAKUMEA

Dendara etortzera animatu nahi dugu jendea, arropa probatuz, zure gorputzera hobekien egokitzen den jantzia aukeratu ahal izateko. Larkan, osagarriekin ere asko jolasten dugu, zapiak, txanoak, poltsak, besteak beste, nortasun ezaugarria baitira.

Une oro berritzen ari gara eta adierazi nahi duzun estilorako, azken errematerako bitxiak ere badauzkagu.

LARKA GIZONA

Leku gutxi dugunez, jantziak hobe aukeratzen ditugu. Blend Of Americak, moda eta prezio ezin hobeak eskaintzen ditu. Desigualek, egunerokotasunarekin hausten laguntzen du, kolorei esker. Six Valvesek alkondara izugarriak dauzka eta Timezone, L.T.B. beharrezkoak dira modan egoteko. Gizonaezkoen osagarriak (txanoak, gerrikoak...) ere data berezietarako aukera paregabea dira.

LARKA



LARKA ETA BEZEROAK

Gure markengan konfiantza osoa dugu. Gure lana sorkuntzan datza, garrantzia ematen diogu ohialen eta koloreen arteko nahasketari.

SAKANAKO JANZKERA

Jende asko gara, bakoitza nahi duen moduan jantzen da,

etiketarik gabe, bakoitzaren estiloarekin bat, bere kabuz. Oso ongi jantzen garela uste dugu. Badakigu ezberdintzen unea, tokia eta ordua eta horren arabera jantzen gara eta horrek pozten gaitu. Jartzen duzuna jartzen duzula, eroso sentitu eta hori zure ingurura ere kutsatuko duzu.

Cristina eta Leire

Isidoro Melero, Altsasu 948 562 396



UDAZKEN NEGURAKO NAHI-TAEZKO JANTZIAK.

Garai honetan izarra berokia izaten da. Bere osotasunean

hartuta artilea modan dago, alkandorekin eta blusekin konbinaturik. 60. hamarkadako lok-a aurreikusten da, ezkila moduko prakak, Sakanan arrakastatsua eta hippy giroa (ileak, "overside" jertseak).

EMAKUMEZKOEN MODA

Emakume gaztean oinarritzen da, moda eta sport arropa gustuko duena. Sakanako joera lok informala eta kirolaria baita.

GIZONEZKOEN MODA

Mutilen eskaeretara moldatzen gara betiere joerek agintzen dutenari so eginez. Kirolaria eta ustekabekoa da gizona, sport-jantziekin konbinaturik.

Aurtengo izarrek luminoak eta militar tankerako komandoak dira eta artileak ere arrakasta handia izango du.

BEZEROAREKIKO ARRETA

Gure apustua Sakanara kalitatezko arropa, modakoa ekartzea eta bezero guztienganaino iristea da. Azken joeren jarraipena egiten dugu eta bezeroen "total look" a osatzen dugu. Bezeroa aholkatzen dugu bere osotasunean goitik behera jantzita nola joan beharko lukeen, bere "personal shopper" ak gara.

SAKANDARREN JANZKERA

Gure ustez hobeki jantzen gara. Gero eta gehiago arduratzen

ML



gara janzkerarekin eta gure ustez hori ona da. Informalki jantzen

ere joera gero eta finduagoa baita.

Laura eta Julene

Garzia Ximenez, 17 Altsasu 948 562 452



Noiztik Sakanan, Altsasun zehazki?

Altsasuko denda 2003an ireki zen, duela 12 urte, baina

Iruñeko dendak lehenagotik daude.

Denda sail ezberdinetan sailkatuta daukazue, zerbitzu ezberdinak dituzue.

Bai esan genezake 3 sail handi eta ezberdinak ditugula. Lehenik kosmetika, aurpegirako, gorputzarako zein makilajerako. Sail honetan marka eta prezio ezberdinak dauzkagu, produktu-gama garestienetik merkeenetara. Bigarren saila lurrin-denda da eta hemen marka garrantzitsu askorekin egiten dugu lan, gaur egun merkatuan asko daude eta guztiekin ezin lan egin. Eta azkenik osagarriak eta

oparitarako detaileak dauzkagu, batez ere emakumeendako, nahiz eta gizonaezkoendako ere zerbait badugun.

Kremagintzan zer nolako garapena nabaritu duzue?

Kosmetikako azken ikerketak genetikarekin erlazionatuta daude, eta beraren bitartez produktu kosmetikoen adinaren seinaleak ezabatu eta gutxitzeaz gain, prebentzio eta atzeratze prozesuan ere eragiten dute. Edo gutxienez zahartze prozesua atzeratzen dute hau iritsi baino lehen. Zentzumenen alderdian, testurak eta lurrinak asko zaintzen dira.

REDIN

Lurringintza garapenik bai?

Hemen denboraldiko berrikuntzei buruz hitz egiten da gehiago. Gertu ditugun egun hauetarako marka gehienek sustapen bereziak egiten dituzte, eta gero komunikabideetan nekatu gabe promozionatzen dituzte. Hori izaten da jendeak nahi izaten duena.

Makillajea lantzeko ikastaroak antolatzen dituzue, arrakasta dute?

Bada, egia esateko bai, antolatatu ditugunetan jendeak



oso ongi erantzun du. Marka ezberdineko makilatzaile profesionalak etortzen dira, doan makilatzen zaituzte eta guztioi gustatzen zaigu ederrago egotea!!!



OPARITU KULTURA

Musika eta literatura Sakanako idazle



2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

euskal kulturaren plaza ugalduz joan da. Eta aurtengo urteurreko egitaraua bete-betea dator; hainbat jarduera eta gurenen eskaintzarekin.

AZOKAREN GUNEA

Azoka: Landakogunean dago, disko eta liburuen salmentagunea da. **Saguganbara:** Ume eta gazte eta familientzako gunea da. Azoka ondoko Elkartegian kokatzen da gune hori. **Ahotsenea:** Musikariak eta idazleak zuzenean eta bertutik ikusteko gunea da. Karpapean, trenbide zaharraren ertzean dago. **Irudienea:** Euskal zinearen gunea, Zugaza zinemaren. **Plateruena Kafe Antzokia:** Landakogunearen eta Elkartegiaren ondoan dago. Kontzertu handiak antolatzen dira bertan. **Kabi@:** Teknologia berrien gunea. Landakogunearen barruan dago. **Szenatokia:** Antzerkigintzaren gunea, San Agustin Kultur Aretoan dago. **Areto Nagusia:** Landakogunearen barruan: Liburuen aurkezpenak, inaugurazioa eta amaiera ekitaldia eta bestelakoak antolatzeko gunea.

Sakanako egileek argitaratutako lanen berri ematen saiatu gara orrialdeotan, Eguberrietarako opari egokia izan daitezkelakoan. Ez da erraza, hala ere, argitaratzen diren lan guztien berri jasotzea, beraz, Sakanako egileren baten lana kanpoan utzi badugu, alde aurretik barkamena eskatzen dugu.

Sakanakoez gainera, hala ere, azaro bukaeran kultur produktu asko kaleratzen dira Durangoko Azokaren itzalpean. Eta, eskaintza zabala lehen eskutik ezagutzeko Durangora joatea da onena. 50 urtetan



FRENETIK TALDEAREN LEHENENGO DISKOA: «GUILLOTINA»

Laukote batek osatzen du taldea: Eneko Larrañaga (bateria, Txapelpunk eta Norrelax ohia), Unai Olalde (gitarra, Eratu), Fonta (ahotsa, Kaotiko eta Kaos Etiliko ohia) eta Xabi Seco (baxua, Hesian ohia). Fontak Kaotiko utzi ondoren musikaren grina barruan zuen eta beste musikari aguraindar batekin hitz egin zuen, Olalde. Zenbait kantu prestatzen hasi ziren eta haiek borobiltzeko Larrañagarekin eta Altsasuko Secorekin jarri ziren harremanetan. Taldea sortu eta 6 hilabetera lehenengo diskoa grabatu zuten: *Guillotina*. Talde honek zitzu bizian egin du guztia: taldea sortu, lehenengo diskoa kaleratu. Taldearen izena hortik dator: erritmo bizi horrengatik. Entseguak Agurainen egiten dituzte, astean bitan. Diskoa, berriz, Altsasuko Itxura estudioetan grabatu dute. Ilbeltzaren 27an kaleratu zuten diskoa eta "pozik" daude jendearen erantzunarekin. Orduz geroztik sortutakoa jendaurrean eman dute Agurainen, Altsasun, Gasteizen, Madrilan, Logroñon, Andoiaian eta hainbat herritan.



ALERTA GORRIAREN AZKENA: «PIZTIA BASOAN»

Bigarren diskoa kaleratu du Alerta Gorria talde arbiuzarrak *Piztia Basoan*. Asier, Ander, Joanes, Urtzi eta Jonek Altsasuko Itxura estudioan, grabatu dute bigarren lana. Bigarren diska honetako abestien letretan egunerokotasunari erreferentzia asko egiten dizkiote. Haien kezka letretan islatzen dituzte eta horren bitartez ahalik eta gazte gehienengana iristea nahi dute. Kontzertuetan jendeak haien kantuak abesten dituztela ikusten dute maiz, horrek erakusten die helburua lortu dutela. Zaila izaten da musika estilo bat definitzea, baina arbiuzarrek ibiltzen duten estilorik fidelena Street punk-a dela esan daiteke. Hard core gisakoa da, musika gogorra, erritmoz azkarra. Bigarren lan honekin haien bidea hartu dute, baina, hasieran talde askoren bertsioak jotzen dituzte, bat aipatzearen, Non Serviun taldearenak. Diskak haien kontzertuetan salgai jartzen dituzte, baita Sakanako zenbait tabernatan eta eskualdeko gaztetxe guztietan salgai jarri dituzte.



BOALEN NOBELA HISTORIKOA: «EN LOS PLIEGUES DEL VIENTO»

Gasteizen bizi den altsasuarra da Jose Migel Boal Gomez. Bere lehen eleberria idazten 2006an hasi zen eta 2010ean despeditu. Tartean, aitaren heriotzagatik, zazpi bat hilabeteko etena izan zen. Orduz geroztik bere nobela argitaratzeko argitaletxeen ateetan jotzen aritu da. 23 ate jo ondoren Madrilgo GoodBooks argitaletxearekin argitaratu du. 502 orriko thrillerrean akzioa eta misterioa kokatu ditu erromatar garaian girotuta. Irailaren 30ean aurkeztu zuten liburua eta dagoeneko bigarren edizioa kalean da. Erromatarrek 70. urtean Jerusalem suntsitu eta pertsona asko esklabu gisa hartu zituzten. Haietako bat da liburuko protagonista, Yosef, 11 urteko haur judua Oiasoko (Irun) zilar meategietara lanera ekarriko dutena. Han lan istripu bat izanen du eta euskal petrikilo batek lagunduko dio sendatzen. Haren bidez bertako ohituren berri jasoko du. Baina erromatarrek ez dira beraz ahaztu eta askatasunaren truke misio bat proposatzen diote: legez kanpo ari den gatzaga bat opatzea.



opariak • aldizkariak • prentsa

maite
tabako-denda

948 467 931 • Intxostia zeharbidea 4 • Altsasu

Eguberri on!
xagu
INFORMATIKA

Idertzagain, 9 ALTSASU 948 567 331 xagu@xagu.net www.xagu.net

La cigüeña

T+F: 948 467 106
La Paz kalea 34, Altsasu
www.facebook.com/laciguedelaltsasu
www.lacigüeña.net



eta musikarien eskutik. **Edan kulturatik!**



«URDIAINGO ELIZA» ETA BURUNDAKO HERRI DESAGERTUAK

Miguel Angel Sagasetak, Urdaingo apaizak, *Urdaingo Eliza* izenburua eman dion liburua argitaratu du. Ez da bakarrik Elizaz ari, ordea. “Urdaingo Elizaren inguruan neukan informazioa baliatuta, dokumentazio hori guztia paperera pasa eta liburu batean biltzea izan da nire helburua. Elizaren inguruko datuak jaso ditut, baina horrez gain, Burunda osatzen zuten herri desagertuen inguruan ere badira aipamenak”. Liburuaren sarreran Burundako 35 herri izen jaso ditu Sagasetak. Gehienak XIV. mendean galdu ziren. Orain, izen asko galtzen ari dira, azarna asko galdu dira eta ermita asko ere bai. Laburpen gisara bildu ditu, gal ez daitezten eta herritarrek jakin dezaten zenbat herri existitu izan ziren Burundan.

LIBURU MARDULA

300 orrialde ditu guztira liburuak. Orrialdeetan barrena testuak eta argazkiak tarteak dira. Urdaingo elizako erretaularen 70 iruditik gora daude. Irakurleek euskaraz eta gazteleraz irakurri ahal izango dute.



AGURTZANE TXIKIARENA: «AGUR, AGUR»

Horixe da Castillo Suarezrek aurtengo udaberrian kaleratu zuen liburuaren izenburua: *Agur, Agur*. Protagonista Agurtzane deituriko neskatila bat da, “baina hain txikia denez, Agur deitzen eta: agur, Agur esaten diote”. Agur egoera txar batean dago: gurasoak banatu egin dira eta nahiko deseroso dago. Ez da egoera berrira ohitzen. Momentu txarretan, haserretzen denean, gaizki dagoenean... hain txikia denez, badu abilezia bat: ezkutatzearena. Indarra edo laguntza beste batzuk emanen diote, Ebelinarekin gertatu bezala. Iñigo Aritza ikastolarekin lotura duten bi pertsona aipatzen ditu idazleak liburuan: Higinia zena eta andereño Idoia. Kasu honetan ateratzeko baimena eskatu zien Higinia familiari eta Idoiari. Lan honen ilustratzailea Jose Mari Morcillo, Morcots, altsasuarra izan da. Idoia eta Higinia ezagutzen zituenez egokia zelako proposatu zion argitaletxeari. EREINek onartu egin zuen.



JL ASENSIO ETXARRIARRAREN «IXA, ASAP!»

Kalean da Jose Luis Asensio sion *Ixa, asap!* liburu. Iruñeko Udalaren literatur lehiaketa irabazi eta argitaratu gabe gelditu ondoren auto-edizioraren bitartez kaleratu du Asensio. Liburuaren izenburuan bi laburdura daude: lehen zatia Isabel izenaren laburdura da: bigarrena, berriz, ingelesezko *as soon as posible* esapidea da. Lau narrazio laburrek osatzen dute ehundik gora orri dituen liburu. Lehenengoa, *Ixa, asap!*, umorez emakume gazte batek Iruñean bere informatika denda eta bizia aurrera eramateko pasatu beharreko abenturak deskribatzen ditu. Bigarren istorioa ilunagoa da: *Damutzea ez da nahikoa*. Hirugarren narrazioa, berriz, Urbanan kokatzen da, *Aitorren pena*. Etxarritik Maiatzara goiz pasa joan diren bi lagun dira protagonista. Azkeneko narrazioa, ordea, depresio eta autoestimuek jota dagoen etxeokandrea bati buruzkoa da. Irurtzango Iñigo Izalek egin ditu ilustrazioak eta haren irudiekin Marina Lopezek prestatu du azala.



«ESTOLDA JOLASAK» JON ARRETXEREN AZKEN ELEBERRIA

Tourek hondoa jo du, ez du bizirik jarraitzeko adorea ematen dion ezer. Oinazeak itsutu egin du, eta mendekua baino ez du gogoan. Ez du ondorioetan pentsatu, eta deportatu egingo dute, azkenean. Baina berak ez du imajinatu ere egiten zer duen zain bere jatorrizko Afrikan. Bere burua aurkituko du berritxo han; oraindik ere ondo sentitzen da kultura eta gizarte hartan, nahiz eta dagoeneko ez den etorkizun hobe baten bila joandako gizon bera. Alou, Aisha eta Yakouba pertsonaiaetan hezurramitzen da afrikarengan ohikoa den abegi ona. Horiiek izango dituen alboan burkinafasoarrak bere bizitzaren etapa berri honetan, zeinetan bizi iraupena izango duen berritxo ere leitmotiva. Toureren derrigorrezko bi daia hori koartada perfektua izango da Jon Arretxerentzat horrenbeste miresten duen Afrikaren berri emateko. Bertakoen eguneroko bizitza eta tradizioak horrenbesteko xehetasunez kontatzen dizkigu, ezen hura sentitzeko, usaintzeko, maitatzeko gai izango baikara.



IMMIGRAZIOAZ: «LA CASA DE LA BUHARDILLA»

Liburu hau abandonu eta elkar aurkitze bati buruz aritzen da, baita itzulerei buruz ere. 50. hamarkadako Extremaduran bere lurraldea eta senitartekoak utzi beharrean aurkitzen da gazte bat, lan bila joateko. 1953. urteko abuztuan tren bat hartu eta iparralderantz abiatzen da, bihotzean esperantza asko dituela. Helmugan, lana aurkitzen du, baina bakardadea horren jasanezina egiten zaio, poliki-poliki familia guztia erakartzen saiatuko dela. Nesaki baten begitik idatzitako istorioa da. Bere ikuspuntutik azaleratzen da immigrazioaren tristura, herrimina, amona ausarta baten presentzia eta egun batean guztia aldatuko den esperantza. Mari Romero Fernandez Badajozeko Quintana de la Serena herrian jaio zen eta hilabete bat besterik ez zuela Altsasura bizitzera ekarri zuten bere gurasoek. Han egin zituen bere bizitzako lehen 10 urteak. Eta, Altsasun bizi izan zen liburuan aipatzen duen ganbarako etxean. Ondoren Legazpira joan ziren bizitzera eta egun, han bizi da.

2015-2016
EUSKARAZKO PRODUKTUEN
KATALOGOA
www.katalogoa.eus

PAPERETZKO EDIZIOA, hautatutako produktuekin.
INTERNETEN produktu gehiago eta azken ordukoak!

MUSIKA
FILMAK
ALDIZKARIAK
KOMIKIAK
LIBURUAK
GURASOENTZAKO MATERIALA
JOSTAILU ETA JOKOAK

0-12 URTE

www.katalogoa.eus
info@katalogoa.eus

donibane

opariak
jostailuak
gozokiak

San Juan 36 • ALTSASU • 948 468 694 • donibanegozokiak@hotmail.com



Marian eta Elena

San Juan kalea, Altsasu 948 563 156



Arkatx eskutik eskura pasa duzue, nolako balorazioa egiten duzu, Elena?
Balorazioa guztiz positiboa

da, nire buruarekiko betebeharrak bakarra nuen... Arkatzen nortasuna ez aldatzea, are gehiago, berrindartzea eta bezeroen beharrak, asmoak, nahiak... entzun eta ahal den heinean betetzea. Betiko denda da, baina garaiak aldatuz doaz eta freskotasuna mantentzen saiatzen ari naiz. Gauza berriak gehitu nahi dizkiot ematen dugun zerbituari, betiere eskaintzen dugun familiartasun edo hurbiltasun hori zainduz.

Irakurlearenganako gertutasuna jorratzen ari zara, nola?
Txango literario bat egin dugu oraingoz, abenduaren 1erako "la fabrica de las sombras" li-

buruaren aurkezpena antolatu dugu Haritza tabernarekin batera. Bezeroek gauza berriak behar dituzte, esperientziak ere eman nahi ditugu, guztion gogoan geldituko direnak. Denda txikiek besteengandik ezberdintzen gaituzten gauzak eskaini behar ditugu, pixkanaka kanpaina edo ekintza ezberdinak eta bereziak egiteko asmoa dugu, hala nola, ipuin kontalariak, tailerrak, tertuliak...

Jokoak eta musika ere baduzu, zein motatakoak dira?
Jolasak haurraren garapen prozesuan garrantzi berezia duela argi dut, material hezitzaile ezberdina izaten saia-

ARKATZ LIBURU-DENDA



tzen naiz, ahal den moduan tokiko ekintzaileak bultzatzen saiatzen naiz, adibidez, Ekiliku etxea (Tutera). Dena den, komunikabideek indar asko dute, eta haurrek modako jostailu eta jolasak ere eskatzen dituzte. Denetarik izaten saiatzen naiz, ezberdintasuna ere eskaini nahi dut. Musika aldetik, Euskal Herriko produkzioak izaten dituzte gehienbat, berriz ere tokikoa bermatuz, berrienei aukera emanez eta herrikoa lagun-

duz. Kasu honetan, nobedade gisa, Nekez taldearen diskoa eskaintzen dugu, Altsasuko Itxura estudioan grabatu dena. Beti bezala, bezeroek eskatzen dutena lortzeko aukera badago, nahiz eta dendan bertan ez izan; beraz, musika komertzialagoa ere eskuratu dezakegu. **Zerk egiten du berezi Arkatz liburu-denda?**
Kultur puntu berezi bat bihurtu nahi dugu. Gure bezeroekiko harremanak estutu eta zaindu.

Ander Muñoz eta Silbia Sesma

Larrañeta 19, Etxarri Aranatz 948 46 04 77



Tradizio handiko denda da Kaxeta Etxarri Aranatz. 2010ean Silbiak eta Anderrek beraien esku hartu zu-

ten liburu-denda honen arduradura. Poz-pozik, animoso, betiko martxarekin jarraitu dute. Bertan, gozokiak erosten jarraitzen dute herriko txikienek, egunkariak hartzen dituzte herriko helduek, liburuak eskuratzen dituzte herriko irakurtzaleek, testuliburuak enkargatzen dituzte herriko ikasleek, opariak eta jostailuak eskuragarri dituzte herriko denek, musika eta DVDak kuxkuxeatzen dituzte herriko musikazaleek. E-mail, fotokopia, fax zebitzua dute herritarrek. Azken berrikuntzak inprimagailuetarako kartutxoak dira, bai orijinalak bai Prink markakoak, eta mugikorrendako osaga-



rriak, kargadoreak, USBak. Euskal Herriko irudiekin Euskal Herrian diseinaturiko aterki bereziak opa daitezke dendan: ardi latxa, joaldu-

KAXETA LIBURU-DENDA



nak, Urbasa, Aralarreko irudiak dituztenak, benetako opari bikaina! Eta Etxarri egindako pitxi artisauek ere,

oparietarako bereziak edo zure buruari kapritxo bat egiteko modukoak. Bertatik bertara!

Miriam

Burunda kalea, Altsasu 948 469 201



Urte bat Liburundan, nolako balorazioa egiten duzu?
Orokorrean oso pozik gaude, jendeak oso ongi hartu gaitu

eta facebook-en ere gero eta lagun gehiago dauzkagu. Horretarako pertsona bat daukagu honetan jarduten duena eta produktu berriak ezagutarazten dituena.

Zer zerbitzu eskaintzen dituzu?

Dendako artikuluak batetik, adibidez, bulegoko eta ikastetxeko materiala, liburuak, opariak eta bestetik, eskuz egin behar diren lanak, hala nola, fotokopiak, enkuadernazioak, inprimatzeak eta plastikazioak. Gainontzeko zerbitzuak enpresa, ikastetxe, guraso elkarte eta udaletxeekin egiten ditugu eta tarifa bereziak dauzkagu horretarako.

Zeintzuk dira dendako berritasunak?

Azken berritasuna Estatu Batuetatik iritsitako boligrafo, ezaba-gomak eta margoak dira, usain eta kolore ezberdinetakoak. Jendeak gogoko ditu kolore bixiak eta usain bizia dituztelako.

Liburu-dendan badituzue produktu eksklusiboak. Zeintzuk?

Papertegian Lider Papel, Motxila eta maletak Tutto, oparitarako Top Model, poltsak eta billete-zorroak Anneke eta Kimidoll eta usaindu produktuak International Arivals.

LIBURUNDA LIBURU-DENDA





IKUSMENA ETA ENTZUMENA

Sakana Optika, eraberritua

Sakana Optikako arduradunak pozik daude kokapen berriarekin eta denda berriak izaten ari duen erantzunarekin. Ikusmena hobetzeko asmoz gerturatzaren diren bezeroei Ainhoak egiten die harrera; entzumen arazoak dituztenei, berriz, Xabierrek. Bien artean tandem ona egiten dute.

Sakana Optikak leku berrian urtebete, baina izatez Sakanan zerbitzua ezaguna da, zein da zuen balorazioa toki berrian?

Balorazioa oso ona da, leku berria da, guk gure modura antolatuta eta egokituta eta oso gustura gaude. Erakusleiho handiak daukagu eta daukagun guztia erakuts dezakegu, honek asko laguntzen digu. Kale honek bizia du, jende asko pasatzen da hemendik, etxeetatik gertuago gaude, herritik gertuago. Aurreko dendan ez genituen gailu berriak ere ezarri ditugu. Badugu bat adibidez begi-bistan arazoak izanez gero, grabatu eta horren garrantzia egiten diguna. Bezeroak bere arazoaren kontrola izateko oso ona da.

Leku berriarekin batera zerbitzua zabaldu duzue, entzumen gaitzetarako zerbitzua.

Bai horretarako Xabier dago eta hemen eskaintzen ditugun zerbitzuak bi dira finen, entzumena aztertzea eta balorazioa egitea. Belarriaren azterketa egiten dugu ea gailuren bat, audifonoren bat behar den edo ez. Ahal den neurrian jendea zerbitzu hori ematen diogu, bizitzan dauden gauza asko gal ez ditzaten. Bezero gehienak 60-65 urtetik gorakoak dira, gazteen artean dauden galerak ez direlako nahikoa arazo bizitza arrunt bat egiteko. Hemen go zerbitzua batez ere helduei zuzenduta dago.

Azken urteotan osasunak eta estetikak bat egin dute, zer deritzozu?

Azken boladan bai pasarelatan, bai modako aldizkarietan betaurrekoak puri-puritan daude, betaurreko handiak, pastadunak eta batez ere ikusgarriak, oso ikusgarriak. Eguzkitakoetan ere joera hori dago. Horrek jendearen eragina du. Emakume



mezko betaurrekoetan joera begiak eta bekainak asko markatzen dituztenak dira. Azken urteetan bai pasarelatan, aldizkarietan antejouak modan daude, handiak, pastazkoak, ikusgarriak. Eragina izan du horrek. Eguzkitakoetan handiak ere. Emakumezkoetan begiak eta betileak asko markatzen dituzten betaurrekoak dira oraingo joera. Betaurrekoak modako beste osagarri bat bilakatu dira. Jantzerarekin batera pisua hartzen ari dira.

Zer dauka berezi Sakana Optikak?

Zerbitzua da berez eskaintzen duguna, harrera ona. Gertutasuna dagoela sumatzen dugu, guri Sakanak asko eman digu azken urte hauetan. Guk hemen dugun helburua zerbitzua eskaini eta sakandarrak laguntzea da, orokorrean bezeroari behar duen horretan laguntzea da. Izan ere gure zerbitzua eskaintzeaz aparte, jende asko bere arazoaren jarraipena egitera guregana gerturatzaren da. Elkarrenganako konfiantza hori eskertzekoa da.

Ikusmen behar berriak, aro digital berrirako

2014an egindako ikerketa batek adierazten du, bataz beste lanean, hezkuntzan eta aisialdian 4 gailu digital ezberdin erabiltzen ditugula eta 10 helduetatik 6 egunetan bost ordu edo gehiago egoten direla gailu horien aurrean.

LENTE BERRIAK MERKATUAN

Behar hauek guztiak kontuan hartuta, lente oftalmologikoen fabrikatzaileak lente berriak garatzen ari dira. Haien helburua sintoma hauek guztiak ahalik eta modu arinenean eragin



Teknologia berrien erabilek begi-bistaren nekea areagotzen ari direla adierazten digute. Begiek azkarrago eta abiadura handiagoz enfokatu beharra dute eta gero eta distantzia laburragoetan eta aldakorretan mugitu beharra dute, tableta edo smartphonen kasuan. Hizkien tamaina txikiagoa izaten ohi da eta gainera pixelatuagoa eta honi guztiari pantailen dirdira gehitu behar diogu.

dezatela da. Lente monofokalak dira eta gailu elektronikoen batean aurrean zaudenean, beheko partean daukan potentzia berezi horrek begiak enfokatzeko egiten dituen ahaleginetan laguntzen du. Potentzia extra hau bakoitzaren adina eta beharren arabera kalkulatu da. Ezagunak dira dagoeneko eta erabiltzen hasi dira, Eyezen lenteak dira.



948 563 124 • Intxostia zeharbidea • ALTSASU
www.optikasakana.com



**EGUBERRIETA-
RAKO OTORDU
BATEN
PROPOSAMENA
EGIN DIGU
EKAITZ
VILLA COB
SUKALDARI
ALTSASUAR
GAZTEAK.**

**HEMEN
DITUZUE
HIRU PLATEREN
OSAGIAK
ETA EGIKERA.
ON EGIN!!**



SAGAR eta FOIE ATABALA

1.



- gran smith 4 sagar
- ahate gibel 1
- gatza
- piperbeltza
- brandy
- azukrea
- ura

EGIKERA:

Lehenik foiea prestatuko dugu. Gatza, piperbeltza eta brandyarekin gozatuko dugu ahate gibela. Ondoren zilarrezko paperean bildu eta labea berotzen jarriko dugu. 53 minutuz lurrinean egosiko dugu 63 gradutan. Foiea egiten den bitartean, lapiko batean ura berotzen jarri eta bi koilarakada azukre bota. Sagarrak zuritu eta xaflatan moztu. Ura irekiten dagoenean 2 minutuz egosi eta iragazi. Silikonazko molde baten erdia sagar xaflez beteko dugu, tartean airerik utzi gabe, estu-estu. Foiea eginda dagoenean xerra bat moztu eta atabalera sartu, sagar xaflekin tartekaturik. Atabala bete ondoren izozkailura sartuko dugu. Zerbitzatu aurretik soplete batekin berotu eta ingurua karamelatu.



ZERRI BELARRIAK ONDDOZ BETETA

2.



- 2 zerri belarri
- 125 g onddo
- tipula 1
- baratxuri ale bat
- 3 orri arrain gelatina
- gatza
- patata 1
- 125 cl ur
- pikillo piperrak
- esnegaina

EGIKERA:

Zerri belarriak 2 orduz egosten jarri. Tipula xehe-xehe moztu eta erregosi, ondoren baratxuria moztu eta tipularekin egin. Onddoak dadotan moztu eta, beste zartagin batean, su fuertean salteatu. Hori egindakoa tipularekin nahastu eta ura bota, onddoak ondo egin arte. Gatza eta esnegaina bota eta irabiatu. Nahasketa horretara ondo bustitako gelatina orriak gehituko ditugu. Beste lapiko batean patata egosi. Gero, aurrez konfitatutako pikillo piperrekin batera irabiatuko dugu. Belarriak egosi eta gero, soplete batekin erreko dizkiogu ileak eta ondo garbitu. 3 cm luzerako borobil forman moztuko ditugu belarriak. Saiatuko gara film paperaren bitartez bola bat osatzen: zerri belarria azpian, gainean onddo nahasketa, eta horren guztiaren gainean beste zerri belarri zati bat. Estu-estu bilduko dugu film paperean eta izozten jarri. Gelatina gogortzen denean, film papera kendu eta zartagi batean su fuertean egin. Aurkezteko: patata eta pikillo saltsa plateran zabaldu, eta gainean, zerri belarriak.

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegi
hildako haragia

Etxeko obradorea:
tripota
tripotxa
mihia
kalluak
saltxitxak
frituak

tel. 948 576 067

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

IQOIA
orroindegia

948 460 111 - Arkuetobide kalea - Etxarri Arantz



PASTEL-KREMAZKO HOSTOPILOK

3.



- Hostopil plaka bat
- 5 gorringo
- 35 g Maizena
- 65 g azukre
- kanela zotz 1
- 375 ml esne
- 125 g esnegain
- gatz pixka bat
- bainila izozkia
- muxika marmelada
- masusta gorri 1

EGIKERA:

Angeluzuzen txikitari moztuko dugu hostopil xafla: 4 cm x 2 cmko laukiluzetan, gutxi gorabehera. Labea 170 gradutan berotuko dugu eta bero dagoenean hostopil zatiak sartuko ditugu. 15 minutuz egin eta gero, labetik atera eta glas azukrea bota. Ondoren, 5 minutuz egin 190 gradutan, azukrea txigortu arte.

Bitartean, pastel krema egingo dugu: esnea, esnegaina eta kanela zotza berotzen jarriko ditugu eta egosten duenean hozten utzi. Beste ontzi batean ondokoak nahastuko ditugu: gorringoak, azukrea, maizena eta gatz. Nahastu eta ondo irabiatu. Ondoren, nahasketa hori esne eta esnegainarekin elkartuko dugu, eta irabiatu eta gero iragazi eta sutan jarriko dugu irin zaporea galdu arte.

Hozten denean mauka batean sartuko dugu krema. Egindako hostopilak erditik moztu eta kremaz beteko ditugu. Barruan, muxika marmelada apur bat jarriko dugu.

Izozkia izozkailutik atera eta epeltzen denean, koilarearekin arrautza forma eman izozki zatiari.

Karamelo saltsa: zartagin batean azukre pixka bat jarriko dugu, ur ttanta batzuk botako dizkiogu eta karameloa eginda dagoenean esnegain pixka bat bota eta irabiatu egingo dugu.

SUKALDARITZA

Goi mailako sukaldaritzan, ikasle

Ekaitz Villa Cob

altsasuarra lapiko artean murgilduta dabil azken urteotan. Familiako lanbidean sakontzea erabaki zuen Iñigo Aritza ikastolan ikasketak bukatu eta gero. Lehenik, bi urtez aritu zen Goierrri Eskolan sukaldaritzan ikasten. Gero, Euskal Herriko hiriburu gastronomikora abiatu zen. Donostiako El Txoko del Gourmeteko sukaldaritzan sakontzeko aukera izan zuen Armentariz anaiekin.

EL CELLER DE CAN ROCAN DAGO PRAKTIKAK EGITEN, GIRONAKO ROCA ANAIEKIN

Orduz geroztik, formazioa praktikekin uztartzen ari da sukaldari gaztea. Udan, Donostiako Urola Jatetxean aritu zen lanean, eta kurtso berriarekin Katalunian ari da praktikak egiten. Gironako El Celler de Can Rocan dago, 3 Michelin Izar dituen jatetxe entzutetsuan, hain zuzen ere. Bertako menuak 300-200 euro inguru balio du; 16 plater ateratzen dituzte, batez beste, menuarekin.



Zu zer zara: bitrozeramika edo butano zale?

Butano zalea.

Zein da gustuko duzun osagaia?

Onddoa, onddo beltza.

Eta osagai horrekin zein plater duzu gustuko duzun jatea?

Arrautza nahaskia onddoekin.

Eta gustuko duzun platera?

Txuleta on bat. Ikusten duzunez, oso tradizionala naiz ni.

Goi mailako sukaldaritzan murgilduta zabilta, zer da ikusi duzun gauzarik berriena?

Lofilizadora bat: makina ho-

nek presioaren bitartez deshidratatzen ditu jakiak, baina janariak ez du bolumena galtzen. Oso makina garestia da.

Etorrizuneko zer asmo duzu?

Udaberrira arte Gironan arituko naiz Roca anaiekin ikasten. Gero, lanean hasiko naiz. Iruñean edo Donostian lana topatzea gustatuko litzaidake.

Zein jatetxetan gustatuko litzazauke lan egitea?

Iruñeko European, adibidez, bestela, Donostiako hainbatetan gustatuko litzaidake.

Zorte on Ekaitz!

Enpresa opariak eta Eguberri loteak egiteko enkarguak hartzen dira



Mendigain kalea, 5 • LAKUNTZA • 948 576 286



Karasatorre

janaridenda • harategia

Artisau erara egindako hestebeteak

Autozerbitzua

Etxeko tripekiak



Kale Nagusia, 22 • Etxarri Aranatz • 948 460 036

GABONETAKO SUKALDARITZAZ

Mercedes eta Candi Lazkano, **eskarmentu handiko lakuntzar sukaldariak**

SORGIÑAK TABERNAN GIROA DAGO. EGIA ESAN, SORGIÑAK TABERNAN BETI DAGO GIROA. MERCEDES ETA CANDI LAKUNTZAN JAIKAK DIRA, ORAIN DELA URTE PIXKA BATZUK. GAUR GOIZETIK SUKALDARITZAZ HITZ EGITERA ETORRI GARA BERAINGANA, BAINA EGIA ESAN EDOZERI BURUZ HITZ EGIN DAITEKE BERAIEKIN: BIZITZAREN GORABEHEREZ, PARRANDAZ ETA TRISTUREZ...



Su artean eman dute bizitza, etxean eta kanpoan, taberna eta jatetxeetan. Eguneroko mila eta mila menu eman dituzte, baita otordu berezi piloa ere. Lehengo eta oraingo Eguberri ospakizunez aritu gara, hitz eta putz.

Sukaldaritza zuen lana izan da, ezta?

Mercedes: Hemen tabernan 60-70 eguneko menu ematen genuen, jende asko ibiltzen zen orduan. Izarran ere ibilia naiz lanean eta eskoletako sukaldariak izan gara urtean.

Candi: Donostian jatetxe batean ibilia naiz ni, alde zaharrean, han bai, itsakia eta arraina ugari egiten genuen, kategoria

handikoa baizen! Han orduak eta orduak txangurrak egosten eta pazientzia guziarekin haragia ateratzen egoten ginen! Zestoako hotelean, Oñatin... 13 urtez egon naiz hortik barrena lanean.

Zer jartzen zen lehen Gabonetako mahaian?

Lehengo garaietan bisigua eta angulak jaten genituen, merke zirelako. Hemen tabernan 10 pezetatan angula kaxuelikak ateratzen ziren, pikatzeko, pentsa! Zer egin behar genuen, dirurik ez zegoen eta! Etxean zegoenarekin moldatzen ginen, oilasko edo kapoiren bat erretzen zen, goxo askoa! Gure etxean ez zen betetzen, bere berean erretzen zen. Postretako etxeko arrautzekin eginda-koak, natillak, amak zartagikoa deitzen ziona, krepe baten antzekoa, kremaz beteta. Buñueloak ere, oso goxoak egiten zituen. Turroi gutxi, ordea!

Arrain zopan espezialistak zaretela aditu dugu.

Mercedes: A ojo egiten badugu ere, bota, bota behar zaio! Arrai klase guztietatik botatzen diogu: legatza, kongrinoa, zapoia... almejak eta ganbak. Zaporea emateko. Berdura asko, dena potxatzen jarri: tipula, baratxuria, porrua, azena-

ria eta perrexila. Tomatea ere! Ondoren txinotik pasatzen da, ganbak eta almejak zartaginean zabaldu, salda bota gainera eta berdura ere, ogi pixka bat ere erretzen da, loditzeko. Koñaka kopa bat berotu eta botatzen zaio ere. Arrain puskek gainera eta listo! Candi: Nik ez, nik marisko krema egiten dut, ez dut txinotik pasatzen.

Bigarreneako zer proposatzen duzue?

Mercedes: Axurki errea, sekretua labe on bat izatea eta egina dagoenean ardo txuria gaintik botatzea da. Candi: Oilaskoari zerbeza botatzea hobe, goxoago ateratzen da.

Mercedes: Elkartean 200 lagunendako afaria prestatzea iritsi gara, pentsa!

Eta postretarako?

Mercedes: Candi gozogile ederra da, munduko aingeru torradarik hoberena egiten du, arrautzen gorringoarekin egiten da, 15 gorringo, ura eta azukrea.

Candi: Esne-gain likidoa, zainzuriak edo onddoak baldin badauzkazu, pudinak ere egin daitezke hasierako platererako. Oso erraza da. Gaur egungo laborerako bereziak diren paper horiek onak dira ere.

MARINELETXE
Eguberri on!
HARATEGIA
Etxeko produktuak

948 46 19 80 Larrañeta Kalea 6
636 70 74 88 Etxarri Aranatz

GANUZA ANAIK
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxefresna elektrikoak

www.cocinasganuza.com
Sukaldeko altzari lanlegiak

c.ganuzacocinasganuza.com

Zumurdietan industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz

Bereziatasunak:
ODOLKIAK, SALTXTXAK,
BETEGARRIAK, TXISTORRAI
eta ETXeko FRITOAK

T. IRIARTE
Hartegi eta urdaitegi

Lizarrakalea 8 - 948 50 00 87
IRURTZUN

Enpresa bazkari eta afariak

Mahai inguruan edozein gauza ospatzeko ohitura oso errotua dago gure artean. Janari goxoz inguraturik, giro epelean eta familia artean, Gabonetako egun hauek bihotza berotzen digute. Azken urteotan, ohitura berri bati ekin diogu, hau ere mahai baten bueltan egiten dugu! Oporrak gertu ditugula, lankideekin bazkari edo afaria izateko ohitura, alegia. Ez dago oso urruti joan beharrik, Sakanan bertan hainbat jatetxe eta ostatu ditugu, zeintzuetan egin dezakegun bazkari edo afari ederra. Bereziak, edo ez horren berezi, gusto guzietarako menuak eta kartak aurki ditzakegu, hori bai, kategoria handikoak, zalantzik gabe! Lanurtea despeditzeko aitzakia bikaina, oporren atarian. Atsedeen hartzea beharrezkoa da, baita giro onean lankideei egun batzuetarako agur esatea. Ongi pasa oporretan!

Juanito
Sagardotegia eta jatetxea
 Fernando Urkia 11 Arbizu
 ☎ 948 460 404

ARITZALKO
 TABERNA-JATETXEA
 948 460 051
 Iruñea-Gasteiz errepeidea, 42.km · Etxarri Arantz

RESTAURANTE CLINKER JATETXEA
 menu berezia 28 €
 Erreserbak: 948 56 23 74
 948 56 23 74 · Nagusia, 1 · Olazti
www.facebook.com/restauranteclinker



84 aukera, eskaintza, abantaila

Beleixeguaixe txartela eskuartean barra-barra erabiltzeko hamaika ideia aurkituko dituzu gida honetan. Aminarendako opari berezi hori, semeak nahi duen bakeroa... Liburua, diskoa, teknologia, arropa edo zerbitzua, behar duzun guztia Sakanan aurkituko duzu. Gainera, BG txartelarekin zure herrian bertan hamaika deskontu eta opari berezi aurkituko dituzu.

Komertzioz komertzio, dendaz denda, probestu itzazu txartelak eskaintzen dizkizun deskontuak eta abantailak. Asko dira, anitzak eta herrian bertan, eskura. **Atera iezaiozu etekina txartelari, erabili BG txartela.**

Jarraian aurkezten dizuegun katalogoa herrika eta alfabetikoki ordenatu dugu.

NOLA ESKURATU BG TXARTELA?

Bazkideguz. Horretarako sar zaituzte www.guaixe.eus web orrira eta formularioa bete. 948 564 275 telefonora deitu edo bierrik@guaixe.eus helbidera idatzi.

BG txartelak eskeintzen dizkizun abantailak gain, %25eko desgrabazioa izango duzu errenta aitortpenean, %10eko beherapena eskeletan, %12koa zorion agurretan eta %5ekoa diseinu zerbitzuan. Horiez gain, hilabeteroko zozketetan parte hartuko duzu eta Guaixea ostiralero postontzian jasoko duzu.

erabili eta probestu

ALTSASU

ARBIZU

ARRUAZU

ETXARRI ARANATZ

IRURTZUN

ITURMENDI

LAKUNTZA

OLAZTI

UHARTE ARAKIL

URDIAIN

ZIORDIA

AGURAIN

IRUÑEA

EUSKAL HERRIA

EUSKARA SUSTATUZ
ATERA ETEKINA
ZURE NEGOZIOARI



948 564 275
948 562 107
publi@guaixe.eus
publizitatea@guaixe.eus

ALDASORO HARATEGIA



30€ko erosketa batengatik
etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALFA54
INMOBILIARIA ALTSASU

Etxe edo pisu baten
erosketagatik 100€ko
txekea opari.

ARKANGOA



Postrea edo kopa doan.

ASENSIO



100€tik gorako erosketetan
hurrengo erosketarako
10€ko balea.

BASOMUTUR



Menuan eta kartan
%6ko deskontua.

BILTOKI



Eguneko menuan,
kafea doan eta karta menuan,
kopa doan.

CITROËN SAN MIGUEL



Total olioetan %30eko
deskontua. Pneumatikoen
aldaketetan %30eko deskontua.

DANTZALEKU TABERNA



Eguneko menuan postrea
edo kopa doan.

EKIN



100€ko erosketengatik
10€ko balea
(beherapenetan izan ezik).

EROSKI BIDAIAK



Anetsetan? Egizu legran!

%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbetan izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

FORD GABIRONDO



Olio aldaketetan %30eko deskontua. Lan mota guztietako eskulanetan %15eko deskontua.

GERTU SAKANA



Sukalderako tresnerian 50€ko erosketarekin %10eko deskontu bala hurrengo erosketarako.

GIXANE ESTETIKA



Produktua opari.

GK KOMUNIKAZIOA



Argitalpen eta diseinu zerbitzuan %5eko deskontua.

GOIKO LOREDENDA



30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

IKER KIROLAK



59,90€

Txartelarekin

53,90€

50€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

IL PADRINO



Eguneko menuarekin txupitua doan.

IORTIA HORTZ KLINIKA



%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Errebisioak doan.

IOSUNE MARAURI FISIOTERAPEUTA



Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

IRUBIDE JATETXEA



Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa +laranja zuku naturala) 2,50€

IZARA



%5eko deskontu zuzena etxeko jantzi eta osagarrietan

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA



%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berrien proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia faktura irakurketa eta analisisia doan.

JULENE KORTSETEGIA ETA LENTZERIA



%5eko deskontua 50€tik gorako erosketetan.

KIKI ARGAZKI DENDA



15x20 cmko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

LA CIGÜEÑA



60€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LARKA



100€ko erosketengatik 10€ko balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA



Litroko 0,04€ko deskontua, erregai guztietan.

LIBURUNDA



%5eko deskontua papertegian.

LOGURE



Bandalux 59,00€/m².

LURESU



Txartelarekin

58€

45€

Manikura set bat.

ML



100€tik gorako erosketetan, 10€ko bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA



Bi klase doan.

NORTE ERLOJUDENDA



%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan izan ezik.

NUEVA IMAGEN ILEAPAINDEGIA



%10eko deskontua.

PINPILINPAUSA



50€tik gorako erosketetan
%10eko deskontu-bale bat
hurrengo erosketarako.

REDIN LURRINGEGIA
ETA KOSMETIKA

Redin

%5eko deskontua
osagarrietan.

SAKANA OPTIKA



2X1 Betaurrekoetan
eta 2x1 audifonoetan
(abenduaren 31era arte).

SORKUNDE



50€ko erosketetan etxeko
produktua doan.

TIPI TAPA OINETAKOAK



60€ko erosketetatik
%10eko deskontua
(eskaintza ez metagarria).

TXIKITXO



60€tik gorako erosketetan
%10eko deskontu-txar-
tel bat hur-
rengo erosketan
erabiltzeko.

XAGU



Asus 15,6" X554LJ
ordenagailu eramangarria
Eguberrietako eskaintza: 490€.

ZELANDI KIROLDEGIA

zelandi

Lehenengo matrikula doan.

JUGA TAILERRAK



Sort olioia botaz gero,
%10deskontua filtro aldaketan.

M^a JOSE ILEPAINDEGIA

Art Deco
makillaje produktuetan
%10eko deskontua.

OLATZEA HOTELA



Eguneko menuarekin,
kafea doan: menu berziarekin,
kopa doan.

ARRUAZUKO OSTATUA



Asteburuko menuarekin kafea
edo txupittoa doan.

ARGIRO OPTIKA



2x1 progresiboetan.

BAIZA MOTOR



%15eko deskontua Stihl
eta Viking produktuetan

ENERITZ ILEPAINDEGIA



%10eko deskontua
Schwarzkopf produktuetan.

ETXARRI HORTZ
KLINIKA

%10eko deskontua
garbiketetan.

ETXARRI KOMERTZIALA



% 10eko deskontua
atseden ekipoetan.

HOSTO GORRI



338,80€
Txartelarekin
321,86€

ILAIA ILEPAINDEGIA



%10eko deskontua Alfa Parf
produktuetan.

IÑAKI OINETAKOAK



50 €ko gastuarekin
%10eko deskontu-balea.

KAXETA LIBURUDENDA



27€

Txartelarekin
25,65€

LIZARDI ESTETIKA
ZENTROA

%5eko deskontua
tratamendu guztietan.

URGAIN ALBAITARITZA



%20eko deskontua
kontsultan.

AINHOA
ESTETIKA ZENTROA

%10eko deskontua aurpegiko
tratamenduuetan.

FRUITIS JANARI-DENDA



%10eko deskontua
fruitu tropikaletan.

JON CORDON TAXIA

TAXIA



%10eko deskontua.

KATE INFORMATIKA



Portatila edo dorrea erostean, sagua eta maletina doan.

MARTXUETA LIBURUDENDA



18€

Txartelarekin
17,10€

PATXI GALARZA AUTOZERBITZUA



50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

T. IRIARTE HARATEGIA



50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXI-DENDA



Bitxietan 100€ko gastuarekin %10eko deskontua

ZURE EKO DENDA



% 10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

VIZU ILEAPAINDEGIA



30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua.

EDERNE ILEAPAINDEGIA ETA ESTETIKA ZENTROA



30 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zebitzuetan, makilaje ukitua doan.

HOSTOAK LOREGINTZA



25 €tik gorako erosketetan %8ko deskontua, garaiko landareetan izan ezik.

J.M. AGIRRE HARATEGIA



50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

LAKUNTZAKO OSTATUA



Menuarekin kafea edo kopa doan.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK MUTURREKO JANARIAK



50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

NEREA ILEAPAINDEGIA

NEREA



Garbitu, moztu eta apaindu 27€.

TANIA ARRANDEGIA



50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

CLINKER JATETXEA



Menuarekin kafea edo kopa doan.

VALCARCE GASOLINDEGIA



0'08 €ko deskontua erregai guzietan.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA



50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

UHARTE GAZTA



40 €ko gastuarekin etxeko produktua opari.

KALUXA TABERNA



Menuarekin kafea edo kopa doan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA



50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA



30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

BERGARA CENTRO OPTICO



Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

TEXARTU



Opariak eta deskontuak.

BERRIA EGUNKARIA



Harpidetza eginez gero, %50eko deskontua.



beleixeguaixe txartela

Izen-deiturak

NA

Kodea

948 564 275 **biernik** *Luzenbidea*

Topatu zure deskontua!